

**NAFARROAKO LEGEBILTZARRA.** Batasunaren helegitea atzera bota dute

# Batasunak izena aldatzea eragotzi dute UPN eta PSNk Bozeramaileen Batzordean

Auzia epaitegietara eramango dutela iragarri du Fernando Barrenak

Irene Arrizurieta | IRUÑA

Batasuneko legebiltzar taldeak izena aldatzea eragotzi du Nafarroako Legebiltzarreko Bozeramaileen Batzordeak, UPNren eta PSNren botoekin. Iragan astean Mahaiak «ez jakinarena» egin zuen, Batasunak bere legebiltzar taldeari izena aldatu eta Nafarroako Sozialista Abertzaleak izango direla adierazi ondok. Mahaiaren erabakiaren aurka Batasunak aurkeztutako helegitea, atzera bota zuen atzo Bozeramaileen Batzordeak.

UPNko eta PSNko ordezkariak helegitearen aurka bozkatu zuten Bozeramaileen Batzordean, eta Batasunak, IUk, CDNk eta EA-EAJk alde.

Fernando Barrena Batasuneko ordezkariak epaitegietara joko dutela esan zuen. Baina, auzitara jo aurretik, gaia zein



EGUNKARIA | Fernando Barrena.

epaitegiri dagokion —Administratiboa edo Konstituzionala— erabaki behar du Batasunak. Epaitegietako bidea luzea izanen da: «Hiru-lau urte», Barrenaren arabera.

Batasuneko ordezkariak tal-

dearen izen aldaketa «bi alderdiren erabaki politikoak» eragotzi duela salatu du. «Ganberako araudiaren erabilera ez egokia egiten ari dira, Legebiltzarreko hirugarren taldea jazartzeko», salatu du Barrenak.

*Nafarroako Sozialista Abertzaleak* deiturak nahasmena eragin dezakeela argudiatu dute UPNk eta PSNk, baina Batasunak dio «aitzakia» dela. Ironiaz, «Nafarroako Parlamentuko ez ustelduak» deitura hartzea pentsatzen ari direla esan zuen Barrenak, «nahasketarik ez izateko».

Batasunak dio UPN eta PSN «irregularatasunean» erori dira, eta araudiaren «gehiegizko» interpretazioa egiten ari dira. «Eragotzen dute talde bakoitzak hartu nahi duen izena erabakitzea. Badirudi PSNk duela eskumen hori», salatu zuen Batasuneko legebiltzarkideak.

**TORTURA.** Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeak 318 txosten aztertu ditu

## Auzitegi Nazionaleko medikuek tortura zantzuak jaso arren, gero ez dituzte aintzat hartzen

Erredakzioa | GASTEIZ

Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeak Patologia Zerbitzuko hainbat medikuek, torturan adituak diren Danimarkako beste medikuekin batera, Espainiako Auzitegi Nazionaleko forensean 318 txosten aztertu dituzte. Azterketa horren ondorioak EAeko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordera igorri zituzten, atzo. Txosten

bera AEBetako *Journal of forensic Science* aldizkarian ere argitaratu dute. Espainiako Auzitegi Nazionaleko auzi-medikuek lege antiterrorista ezarritako ehun atxiloturi eginiko 318 mediku txosten aztertu dituzte medikuok. 71 txostenek diote atxilotuak tratu txarrak jasan zituela: 60 kasutan kolpeak eta 24tan *poltsa*. Beste 101 txostenetan, berriz, atxilotuek indarkeria aztamak zituztela azaltzen da. Au-

zitegi Nazionaleko auzi-medikuen txostenen kalitateari dagokionez, «hutsune» ugari daukela diote adituek. Haien arabera, torturaren inguruko datu esanguratsuen gabezia dago: 314 txostenetatik, 34 ondorio baino ez zeuden. Hortaz, medikuen ustez, aztertutako informazioak «ahulak» dira.

Gauzak hala, adituek honako aholkuak ematen dituzte: mediku azterketak, polizien kontrolatik at egitea; gai diren mediku neutralek egitea; egituratutako protokolo bati jarraituz egitea, eta egindako txostenek nazioarteko arau zientifikoak betetzea.

### LAGURREAN

#### Euskal presoan 500 senide baino gehiago bildu ziren Zornotzan, Noizko? kanpainaren lehen ekitaldian

Ettxerat elkarteak hasitako *Noizko?* kanpainaren lehen ekitaldiak euskal presoan 500 senide baino gehiago elkartu zituen Zornotzan, iragan igandean. Legeak dioena bete dadila eskatu zuten han bildutakoek, giza-kate luze baten bitartez: Zigor Kodeko 90. artikulua baldintzapeko askatasuna emateko jarzuten dituen baldintzak bete arren, euren senideek preso jarraitzen dutela salatu zuten. Ekitaldian, Ettxerat-ek eta Atoan plataformak idatzi bana kaleratu zuten. Hurrengo ekitaldia Gasteizen egingo da, maiatzaren 19an.

#### Gaur hasiko dira Gernika Gogoratzuz-en XII. Jardunaldiak

Gaur hasi eta larunbata bitartean egingo dira Gernika Gogoratzuz elkarteak antolatutako Kultura eta Bakeari buruzko Nazioarteko XII. Jardunaldiak. Aurtengo leloa *Adostasunei babes, bake belaunaldiaren gakoak* izango da, eta, mundu osoetik etorritako 70 pertsona inguru gatazken konponbideen inguruan mintzatuko dira. Bakea lortzeko «adostasunak bilatzea» izango da jardunaldien ardatza.

#### «Gazte oldarkorren» gurasoei laguntzeko zerbitzua eskatu dio Jaurilaritari PSE-EEK

Gemma Zabaleta PSE-EEko legebiltzarkideak legez besteko proposamena aurkeztu zuen atzo: Eusko Jaurilaritari eskatu zion «gazte oldarkorrek dituzten familiei» laguntzeko zerbitzuak jarraitzea. Gazteek «jarrera baketsu, tolerantia eta demokratikoak» berreskura ditzaten lortzea izango litzateke zerbitzu horien helburua, Zabaletak azaldu zuenez.

#### Espainiako bandera igotzeko eskatu die Eusko Legebiltzarrari eta Ertzaintzari Espainiako Gobernuak

Espainiako Gobernuak jarduneko ordezkari EAEn Cesar Velascok, Espainiako bandera altxatzea eskatu zien atzo gutun bidez EAeko Legebiltzarrari eta Ertzaintzak Arkauten duen Akademiari. Velascok gogorazten die 1981eko Legeak dioela Espainiako banderak erakunde ofizialen kanpoaldean egon behar duela. Izan ere, Legebiltzarraren kanpoaldean ez dago bandera bat ere, eta Arkauten ikurrina baino ez da ageri.

#### Borroka egunera deitu du biharko Donostiako Gazte Mugimenduak

Bihar goizeko 11:00etan Donostiako ikastetxe gutzietan geldialdia egitera deitu du Donostiako Gazte Mugimenduak, Iñigo Aizpuru gazte donostiarraren atxiloteta eta «euskal gazteriaren aurkako errepre-sioa» salatuz. 12:30etan manifestazioa egingo da, bulebarrean, eta arratsaldean mobilizazioak.

#### Larunbatean 245 EHNA tramitatu zituzten Zarautzen

Larunbatean 245 EHNA tramitatu zituzten Zarautzen, Udaltzaren Batzorde Eragilearekin elkarlanean horretarako jarri bulegoan. Datorren ostegunean beste saio bat egingo da, Euskadiko Kutxaren bulegoan. ANV alderdiak, bestalde, sostengua kendu dio ENA elkarteari, eta erabateko babesaren EHNari eman.

### EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA  
ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
COMERCIO Y TURISMO

## ERANDIOKO MERKATARIEI DEIALDIA

**Eguna:** 2002-04-24  
**Ordua:** 20:30  
**Tokia:** Udaletxe Udalbatza-aretoa  
**Gaia:** Merkatarieendako Merkataritza Zuzendaritzaren diru laguntzen aurkezpena

## MENDEBALDE KULTUR ALKARTEA VI. JARDUNALDIAK

Gaia: Euskalkia eta Administrazioa

Tokia: Bizkaiko Batzar Nagusien Aretoa (Hurtado Ametzaga k. 6) Bilbo

Egunak eta ordua: maiatzaren 10ean (16:00etan) eta 11n (09:00etan)

Hizlariak: Manex Goienetxe, Jose Mari Satrustegi, Txomin Peillen, Andres Urrutia, Jexux Eizagirre, Imanol Bilbao, Lontzo Zugazaga, Gotzon Lobera, Mari Jose Arrieta, Gorka Aurre, Kontxi Gabantxo, Esther Urrutia eta Juan Jose Larrea.

Matrikularen prezioa: - Ikasleak: 10 euro  
- Gainontzekoak: 30 euro

Ordaintzeko era: BBK 20950260809022707760 (maiatzaren 8ra arte)

Argibideak: Tf.: 94 661 21 15 / 639152787 (10:00etatik 13:00etara)  
Helbide elektronikoa: mendebalde@euskalnet.net

## Oiartzungo Udala

IRAGARKIA

Udal honetako Gobernu Batzordeak, 2002ko apirilaren 16an hartutako Erabakiaren bidez, Matias Grande Pison Ingenieroak idatzitako Oiartzungo 35B eremuko (Aranguren Poligonoa) Xehetasun Azterketari haserako onarpena ematea onartu zuen.

Interesatuak egokituz jotzen dituzten alegazioak aurkez ahal ditzaten proiektua eta bere espediente hama-bost eguneko epean jendaurrean jarriko da.

Oiartzunen, 2002ko apirilaren 18an.  
ALKATEAK.